

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

#### **COVID-19ak osorik edo zati batean kaltetutako enpresa jarduera duten lokalei aparteko dirulaguntzak emateko deialdiaren laburpena**

DDBN(Identif.): 580294

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/580294>).

([www.infosubvenciones.es](http://www.infosubvenciones.es)).

Alkatearen abuztuaren 18ko 250/2021 Ebazpena, zeinaren bidez onespina ematen baitzaio COVID-19ak osorik edo zati batean kaltetutako enpresa jarduera duten lokalei aparteko dirulaguntzak emateko deialdiari.

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Oinarri hauetan ezarritako dirulaguntzaren onuradun izan daitezke pertsona fisikoak nahiz juridikoak, baldin eta Arratzua-Ubarrundiako udalerrian dagoen lokal edo eraikin batean jarduera hauetakoren bat egiten badute:

- Ostalaritza.
- Kirol hobekuntzarako eskola eta zerbitzuak.
- Biltzarrak, batzarrak eta antzekoak antolatzeke zerbitzuak.

Eskatzaileen betekizunak:

1. Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotea 2020ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra arte, 671,672, 967 eta 989 epigrafeetan.

2. Gizarte Segurantzarekin betebeharrak egunean izatea, baita Arratzua-Ubarrundiako Udalarekin ere zergei dagokionez. Eskakizun hori beteta egon beharko da eskaera aurkezten den unean, eta indarrean egon beharko du dirulaguntza eskaera izapidetzearen prozesu osoan (dirulaguntza ematea, betebeharra aitortzea eta ordaintzea).

3. Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen administrazio zehapenik edo zehapen penalik ez izatea edo horrelako legezko debekurik ez izatea.

#### **Bigarrena. Xedea**

Oinarri hauen helburua da COVID-19aren aurkako neurrien ondorioz bereziki kaltetutako sektore batzuk babestea eta haiei sostengu ekonomikoa ematea, lehia arrunteko erregimenean aparteko laguntzak emateko baldintzak arautuz.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

COVID-19ak osorik edo zati batean kaltetutako enpresa jarduera duten lokalei dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak Udalbatzak onetsi zituen 2021eko ekainaren 28ko bilkuran eta 2021eko abuztuaren 11n argitaratu ziren ALHAOn, 90. zenbakian.

**Laugarrena. Diruz lagundu daitezkeen gastuak**

2020ko ekitaldian zabor tasa gisa ordaindutako gastuak diruz lagundu ahal izango dira.

**Bosgarrena. Laguntzaren zenbatekoa**

2020ko ekitaldian zabor tasa gisa eskatzaileak ordaindutako kopuruaren ehuneko 100 diruz lagunduko da.

**Seigarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Eskaerak egingo dira oinarrien eranskinean ageri den ereduan, oinarrietan jasoriko dokumentazioa aurkeztu beharko da, eta aurkezteko epemuga 2021eko urriaren 15a izango da.

**Zazpigarrena. Eskaerari erantsi beharreko agiriak**

Normalizatutako dirulaguntza eskaera, behar bezala beteta, I. eranskineko ereduaren araber.

Ordainketa zein kontu zenbakitan egitea nahi den.

Dura, 2021eko abuztuaren 18a

*Alkatea*

*M<sup>a</sup> BLANCA ANTÉPARA URIBE*